

GUGGENHEIM BILBAO

ALBERTO GIACOMETTI RETROSPECTIVA

2018(e)ko urriak 19 – 2019(e)ko otsailak 24

GAIAK I KOILARA - EMAKUMEA (Femme cuillère), 1927

[Argazkigintza](#) | [Arkitektura](#) | [Dekorazio- artea](#) | [Eskultura](#) | [Instalazioa](#) | [Pintura](#) | [Serigrafia](#) | [Argazkigintza](#) | [Arkitektura](#) | [Dekorazio- artea](#) | [Eskultura](#) | [Instalazioa](#) | [Pintura](#) | [Serigrafia](#) | [Gizarte Zientziak, Geografia eta Historia](#) | [Hezkuntza Plastikoa eta Ikusizkoa](#) | [Hizkuntza eta Literatura](#) | [Informatika](#) | [Teknologia](#) | [Gizarte Zientziak, Geografia eta Historia](#) | [Hezkuntza Plastikoa eta Ikusizkoa](#) | [Hizkuntza eta Literatura](#) | [Informatika](#) | [Teknologia](#)

- Sarrera



Alberto Giacometti

Koilara-emakumea (Femme cuillère), 1927

Igeltsua

146,5 x 51,6 x 21,5 cm

Fondation Giacometti, Paris

© Alberto Giacometti Estate / VEGAP, Bilbo, 2018

“Asko interesatzen zait artea, baina, senez, askoz ere gehiago egia [...] Zenbat eta lan gehiago egin, orduan eta gehiago ikusten dut desberdin”[1].

14 urte zituela, Alberto Giacomettik (1901–1966) Diego anaiaren bustoa zizelkatu zuen aitaren estudioan, eta, apur bat geroago, bere lehenengo olio-pintura egin zuen: *Natura hila sagarrekin*. 20 urterekin, Parisera joan zen, Émile-Antoine Bourdelle eskultorearekin Grande Chaumière akademian ikasteko. Bertan, lehenengo abangoardia artistikoen irakinaldi kulturalen hartu zuen parte, eta mendebaldekoak ez diren beste herri batzuetako ekoizpen artistikoa eta kultura grekoa ezagutu zituen.

1925 eta 1965 artean, Giacomettiren ekoizpen artistikoa bat etorri zen modernitateko mugimenduekin: kubismoa, surrealismoa, abstrakzioa, eta berriz ere figuraziora itzultzea. Garai hartan, haren obrak espirituala den horretan sakondu zuen, giza figura gizakiaren sintesi sinboliko gisa erabilia. 1926an, Giacomettik arte afrikarrean jarri zuen arreta. Eragin hori ez

GUGGENHEIM BILBAO

zen berria aurreko belaunaldiko artista modernoentzat; besteak beste, Picasso eta Derain-entzat. Parisko Louvre museoan ikusi zituen Giacomettik Ziklade irletako estatua klasiko grekoak, eta horietan oinarrituta, eskulturaren eta planoaren arteko harremana aztertu zuen. Museo Etnografikora joaten zen askotan, eta abangoardiako aldizkariak irakurri ohi zituen; adibidez, *Cahiers d'art* eta *Documents*. Argitalpen horietan ikusten denez, garai hartan mendebaldekoa ez den artea zuten gustuko.

1927an, eragin horiek *Koilara-emakumea* obran laburbildu ziren. *Koilara-emakumea* igeltsuan sortu zuen, eta, gero, brontzean moldatu; etapa honetako pieza monumentala da. Kubismoaren berezko geometria, arte afrikarreko forma estilizatuak eta Europako modernitatearen sinpletasun formala interpretatzen ditu pieza honetan Giacomettik. Eskulturak abdomen ahur handi bat du, emakumezkoen umetokia balitz bezala; Dan kultura afrikarreko koilara zeremonial antropomorfoetan inspiratuta dago, eta oparotasunari gorazarre egiten dio.

Mendebaldekoa ez den arteak eragin iraunkorra izan zuen Giacomettiren ekoizpenean; irudikapen naturalista eta akademikotik urruntzea ahalbidetu zion, eta interpretazio magikoz betetako giza figuraren ikuspegi totemikora eta irudikapenera hurbiltzea. Giacomettik koilara zeremonialen metafora ere aztertu zuen obra honetan.

- Eztabaidagaiak

Behatu arretaz Alberto Giacomettiren obra hau. Zuen ustez, zer irudikatzen du eskultura honek? Zer iruditzen zaizue deigarria?

Koilara-emakumea du izena. Zuen ustez, nola egiten dute bat izenak eta obrak? Alderdiren batean ez al datoz bat? Zer alderditan? Zer beste figura/pertsonaia irudika lezake? Izena aldatzerik bazenute, zein jarriko zenioke?

Hartu kontuan ikuspegi praktikoa: koilara bat balitz, zer abantaila edo desabantaila izango lituzke koilara arrunt baten aldean? Nolakoak izango lirateke koilara horrekin egongo liratekeen labana eta sardexka? Marraztu egin ditzakezue; gero, gainerako ikaskideei erakutsi beharko diezue marrazkia. Zer antzekotasun eta desberdintasun daude zuen diseinuen artean?

Zuen ustez, zergatik lotu ditu artistak koilara baten forma eta emakume batena? Nola aldatuko litzateke eskultura gizon baten figura iradokiko balu?

1920ko hamarkadaren erdialdetik, Giacometti eta beste artista asko (adibidez, Pablo Picasso, Man Ray eta Constantin Brancusi) liluratuta geratu ziren arte afrikarra ikertzen hasi zirenean. Sarean, bilatu artista horien obren irudiak; bilatzailean, idatzi artistaren izena eta "arte afrikarra". Zuen ustez, zergatik ikertu nahi izan zituzten Europako artista horiek mendebaldekoak ez ziren herrietako adierazpen plastikoak? Zer ekarpen egiten die objektu afrikar horiek ezagutzeak beren praktika artistikoetarako? Nola zabaltzen ote ziren ideia horiek garaiko intelektualen artean?

- Jarduerak

Figura hibrido bat egitea

GUGGENHEIM BILBAO

Banatu ikasgela bi taldetan. Talde bateko kide bakoitzak eguneroko objektu baten izena (sardexka, bihurkina, telefonoa, etab.) idatziko du paper txiki batean; eta bigarren taldeko kide bakoitzak, berriz, pertsonaia baten izena edo zeregin profesional bat (pailazoa, polizia, irakaslea, etab.). Ondoren, binaka, hartu ausaz objektu baten izena duen papertxo bat, eta zeregin bat edo pertsonaia baten izena duen beste bat.

Horrela, artista surrealistek ere erabili zituzten ausazko metodoetan oinarrituta, figura hibrido bat sortu beharko duzue egokitu zaizkizuen bi hitzak erabilita. Horretarako, irudiak editatzeko programa informatiko bat erabil dezakezue; adibidez, Adobe Photoshop edo antzeko bat. Nahiago baduzue, fisikoki ere egin dezakezue, collage bat balitz bezala.

Adibidez, laban-suhiltzaile bat, aulki-mediku bat edo lanpara-astronauta bat diseinatu beharko duzue. Zer ezaugarri izango dituzte pertsonaia histrioniko horiek? Nola lotuko dituzue zuen obran pertsonaiaren nortasunarekin erlazionatutako ezaugarriak (ausarta, aspergarria, barregarria, etab.) eta objektuaren ezaugarri fisikoak (gogorra, teknologikoa, egunerokoa, etab.)?

Autoerretatu eskultorikoa

Pentsatu zuk duzun ezaugarri positibo batean eta nola irudikatu ahal izango zenukeen metaforikoki objektu batean. Sortu buztinezko eskultura bat eta pertsonaliza ezazu zure ustez positiboa den ezaugarri hori irudikatu ahal izan dezan.

HIZTEGIA

Kubismoa: 1907an Frantzian sortutako mugimendu artistikoa; erabat hautsi zuen Errenazimendutik zetorren ikuspegi piktoriko tradizionalarekin. Pablo Picassok eta Georges Braque-k sortu zuten kubismoa, eta abangoardiako lehenengo mugimendua izan zen. Haren adierazle nagusiek irudi geometrikoak nabarmentzen dituzte beren pinturretan; lerroak eta gainazalak zatitzen dituzte, eta ezohiko ikuspegi askotarikoa hartzen dute.

Abstrakzioa: forma artistikoak beregainak edo independenteak direla aldarrikatzen duen mugimendua, naturala dena edo objektuen kanpo-itxura irudikatzeko zeregin tradizionalaren aurrean. Abstrakzio-maila partziala edo absolutua izan daiteke.

Surrealismoa: Frantzian sortutako literatura- eta arte-mugimendua. Haren lehenengo manifestua André Breton poeta eta kritikariak idatzi zuen, 1924an. Inkontzientek sortze-jardueran duen eginkizuna nabarmentzen du korrante honek. 1917an, Guillaume Apollinaire poetak, mugimenduaren aitzindariak, *surrealismo* hitza sortu zuen, irudizkoa eta irrazionala denaren bulkada psikikotik abiatuta erreala dena gainditu nahi hori azaltzeko.

Figurazioa: kopiatuta edo antzekotasun bisuala bilatuta errealitatea imitatzen saiatzen den estilo artistikoa.

BALIABIDEAK

<https://www.fondation-giacometti.fr/fr/database/161069/femme-cuillere>

<http://proa.org/documents/Giacometti-PressKit.pdf>

GUGGENHEIM BILBAO

<https://www.artsy.net/artwork/alberto-giacometti-femme-cuillere-spoon-woman>

<https://www.guggenheim.org/artwork/1421>

OHARRAK

[1] "Tate Modern presents the UK's first major retrospective of Alberto Giacometti for 20 years", <http://www.tate.org.uk/whats-on/tate-modern/exhibition/giacometti>